

"Baztango Udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu "Europako Hondakinen Prebentziorako astea"ren baitan

Europako hondakinen prebentziorako astea baliatuz eta bertako komertzio eta jatetxeekin elkarlanean, Baztango Udalak hainbat sentsibilizazio ekintza antolatu ditu egun hauetarako. Ekintza hauek jendartea hondakinen prebentzioaz ohartarazi, kontzientzia piztu eta gure eguneroko bizitzan praktikan jartzeko baliabideak eskeintzea dute helburu

Urtero bezala, Baztango Udalak hondakinen prebentzioaren inguruko hainbat ekintza martxan jarri ditu egun hauetan. Ekintza hauek **Europako Hondakinen prebentziorako astearen** baitan antolatzen dira eta aurtengoan aste hau **azaroren 20a eta 27a bitartean** ospatu da. Nafarroa mailako PREBENTZIO ekintzen aurkezpena Lekarozko LHZan egin zen azaroaren 19an, bertan Nafar Gobernuak eta Nafarroako Mankomunitate ezberdinetako kideek Baztango eragile ezberdinen ahotik beren egunerokoan hondakinen prebentzioaren inguruan egiten dituzten ekintzak ezagutzeko aukera izan zuten. Ekitaldian aurkeztu ziren eta Baztango Udalak egun hauetan aitzinera aterako dituen ekintzetako batzuk aipatuko ditugu jarraian. Udalak Baztandarrak ekimenekin bat egitera, zabaltzen diren mezuen inguruko erreflexioa egitera eta gure eguneroko bizitzan ohitura jasangarriak aplikatzera animatu nahi ditu.

Elikagaien xahuketa

Nafarroako Gobernuaren eta Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoaren laguntzarekin Baztango Udalak eta Bortzirietako Mankomunitateak "BirOn egin! Baita zure etxean ere!" kanpaina abiatu dute. Kanpaina honen bitartez elikagaien xahuketa saihestu nahi da, honela, herritarrak jatetxeetan akitu gabe uzten duten janaria etxera eramateko aukera baliatzera animatu nahi dituzte. Kanpainen parte hartzen duten jatetxeak identifikatuak egonen dira eta hauetan tupur konpostagarrietan janari soberakina eramateko aukera izanen dute herritarrek.

EZ BOTA HONAKINA
ATERA ETEKINA
YO NO ECHO
YO APROVECHO

**ELIKAGAIEN XAHUKETAREN
KONTRAKO ESTABLEZIMENDUA**

**ESTABLECIMIENTO
CONTRA EL
DESPILFARRO
ALIMENTICIO**

Baztango Udala
Tel. 667 808 539

Bortzirietako
Mankomunitateak
www.bortzirietakabor.com
Tel. 948 63 52 54

Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

residuos de Navarra / nafarroako hondakinak

Hondakinik gabeko erosketak “hondakinik onena sortzen ez dena”

Prebentzio ekimenen baita baita ere eta Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoaren aportazioari esker, Baztango hainbat arraindegi eta harategietan tuper berrerabilgarriak banatuko dira bezeroen artean. Tuper hauek arraindegi eta harategietako eguneroko erosketetan erabiltzeko izanen dira eta honekin gehiegizko bilduki eta poltsen erabilpena saihestu nahi dira. Hontaz gain, gainerako komertzioetan ere, eta eguberrietako erosketen harira, poltsa berrerabilgarriak banatuko dira.



Sukaldaritza tailerrak

Elkagaien xahuketaren inguruan baita ere iraila eta urria zehar Sukaldaritza tailerrak antolatu ziren Erratzu, Lekaroz eta Elizondon. Tailer hauetan Elbeteko Posadako Belenen eskutik “Baratzeko kontserbak nola prestatu”, “Soberakinen sukaldatu” eta “Oilasko oso bat nola aprobetxatu” ikasteko aukera eskeini zitzaizen izena eman zuten herritarrei.

Plastikorik gabeko astea ikastetxeetan

Europako Hondakinen Prebentziorako Astea baliatuz baita ere, Lekarozko institutuak bigarren urtez antolatu du “Plastikorik gabeko astea”. Aste honetan kontzientziario ariketa berezi bat egiteko parada hartu dutelarik. Donostiako Cristina Enea Fundaziotik jasotako proposamenaren harira antolatu dute aste hau.

2022ko Hondakinen Egutegiaren banaketa

Aurten ere Hondakinen Egutegia Baztango Udalak eta Malerrekako Hondakinen Mankomunitateak Baztango eta Malerrekako merkatarien elkarteekin (Bertan Baztan eta Denok Bat) elkarlanean egin dute. Egutegiak ikastetxeen bitartez banatuko dira eta Udaletxean bertan eta Bertaneko komertzioetan ere eskuratzeko aukera izanen da ondoko egunetan.

Prebentzioa haur sortuberrietan

Gaur egun sortzen diren haurren etorkizuna gure eskuetan dagoela ikusirik eta haur hauekiko eta beren etorkizunarekiko gurasoek duten erantzunkizuna azpimarratu nahian, "hondakinen prebentzioa haur sortuberrietan" eskuorria prestatu zuen joan den urtean Baztango Udalak. Haur sortuberriak dituzten familiendako, bizitzako haserako fase honetan sortzen diren hondakinek beren etorkizuna nolabait baldintzatu dezaketela oroitaraziz eta bide horretan lagundu asmoz, Aurten Baztanen sortu diren haurren gurasoei helarazi zaie eskuorria.

Nafarroako Birziklatzen Zentru Birtuala Baztanen

Hondakinen Prebentziorako Bulegoak, Ecoembes, Ecovidrio eta Hondakinen Kudeaketarako bertze Sistema Kolektiboek (Ambilamp, Ecotic, ERP, Ecolec, Ecoasimelec, Ecofímica eta Eolum) bultzaturiko ekimen hau Baztanen izan dugu abenduaren 1ean.

3D simulagailu honen bitartez, Baztango gazte eta helduek hondakinak ongi bereiztearen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzea zen asmoa.

Partehartzaileak errealitate birtualeko teknologia erabiliz birziklatze-zentro bat birsortzen duen gela batera sartzen ziren, bertan uhal garraiatzaile baten bidez zirkulatzen duten hondakinak hautatu eta edukiontzi egokian utzi behar zituztelarik.

Partehartzaile bakoitzak puntuazio bat lortzen zuen eta sailkapen bat egiten ari dira hauekin. Kanpainaren amaieran zenbait sari banatuko dira, irabazleak patinete elektriko bat irabaziko duelarik. Gainera, partehartzaile bakoitzak bere puntuazioaren inguruko informazio guztia jasotzen du, hondakinen bereziketan hobetzen jarraitzeko helburuz.

